

IX. IGANDEA URTEAN ZEHAR (A)

Otoitza

Jainko Jauna, beti zuzen erabakitzen duzuna,
zure eskuetan uzten ditugu geure bizia eta izatea;
ken gugandik kaltetarako zaiguna
eta eman oraingo eta geroko bizitzarako zeure laguntza.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Dt 11, 18. 26-28

*Horra, bedeinkapena eta madarikapena
eskaintzen dizkizuet.*

Deuteronomio liburutik

Moisesek honela hitzegin zion herriari: «Sar itzazue nire hitz hauek zuen bihotzetan eta gogoetan; lotu ezaugarritzat zuen eskumuturretan, eta seinaleztat zuen bekokietan.

Horra, bedeinkapena eta madarikapena eskaintzen dizkizuet gaur; bedeinkapena, gaur ematen dizkizuedan Jaunaren, zuen Jaungoikoaren, aginduak aditzen badituzue; madarikapena, Jaunaren, zuen Jaungoikoaren, aginduak aditzen ez badituzue, eta gaur agintzen dizuedan bidetik saihesten bazarete, ezagutu ez dituzuen jainko arrotzetara bihurtzeko».

ERANTZUN SALMOA: Sal 30, 2-3ab. 3cd-4. 17 eta 25

**R/. Izan zakizkit harkaitz, Jauna,
ni gordetzeko.**

Zugana biltzen naiz, Jauna,
ez nadila behinere lotsa:
zeure zuzentasunez onik nazazu atara.
Belarri hori hurbil iezadazu;
zatoz laster, aska nazazu. R/.

Izan zakizkit harkaitz, ni gordetzeko,
gaztelu sendo, ni salbatzeko.
Zu baitzaitut harkaitz eta gaztelu,
zeure izenagatik eraman nazazu, eta gidatu. R/.

Aurpegi argia erakutsi morroi honi,
salba nazazu zeure errukiz.
Bizkor zaitezte, izan bihotz,
Jaunagan uste on duzuen guztiok. R/.

II. IRAKURGAIA: Erm 3, 21-25a. 28

*Gizakiak fedearen bidez iristen du zuzentasuna,
Legeko egintzarik gabe.*

San Paulo Apostoluak Erromatarrei

Senideok: Orain, Legean eta Profetetan zegoen Jaungoikoaren zuzentasuna, Legerik gabe agertu da; Jesu Kristorengan sinestetik dator Jaungoikoaren zuzentasuna, sinesten duten guztiengana, bereizkuntzarik egin gabe. Guztiak egin dute bekatu, eta Jaungoikoaren aintza galdu dute; eta Haren graziaz, hutsean iristen dute zuzentasuna, Jesu Kristoren erospenari esker. Hau jarri du Jaungoikoak opari bakegarri, Haren odolean sinesten dela. Uste dugu eta, gizakiak fedearen bidez iristen duela zuzentasuna, Legeko egintzarik gabe.

EBANJELIOA: Mt 7, 21-27

Aleluia: Jn 15, 5

R/. Aleluia.

V/. Ni naiz mahatsondoa, eta zuek aihenak
—dio Jaunak—;
Niregan dagoenak, eta Ni harengan,
fruitu asko ematen du. R/.

*Harkaitz gainean eraikitako etxea,
eta hondar gainean eraikitakoa.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Aldi hartan, Jesusek honela esan zien bere ikasleei: «Niri "Jauna, Jauna!" ari zaizkidanak, ez dira guztiak sartuko zeruetako erreinuan; zeruan dagoen nire Aitaren nahia egiten dutenak baizik. Egun hartan askok esango dit: "Jauna, Jauna, ez al ginen zure izenean profeta izan? Ez al genituen zure izenean deabruak uxatu, eta zure izenean mirari asko egin?" Orduan esango diet garbi: "Ez zaituztet behinere ezagutu; alde Niregandik, gaizkileok!"

Beraz, nire hitz hauek entzuten eta betetzen dituenak, bere etxea harkaitz gainean eraiki zuen gizon zentzudunaren antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, atera zuen haizea, eta jo zuten etxe hura; baina ez zen erori, harkaitz gainean oinarritua baitzegoen.

Nire hitz hauek entzuten dituenak, eta betetzen ez, bere etxea hondar g

burugabearen antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, atera zuen haizea, jo zuten etxe hura, eta erori egin zen; eta haundia izan zen haren hondamena».

Oparigaien gainekoa

Zure bihotzean uste on dugula etorri gara, Jauna,
geure eskaintzekin:
zure grazia lagun ospatzen dugun sakramentuak
garbi gaitzala.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Zure Semearen gorputz-odolez janaritu gaituzunok, Jauna,
gida gaitzazu, arren, zeure Espirituaren eragitez:
Zu egitez eta benetan aitorturik,
eta ez mingainez eta hitzez bakarrik,
zeruetako erreinuan sartzea irits dezagun.
Jesu Kristo.